



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO MAIATZAREN 12AN OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko maiatzaren 12an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- 2009KO EKAINAREN 7AN OSPATUKO DIREN EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDETARAKO MAHAIKIDEEN OSAKETARAKO ZOZKETA.-

Datorren 2009ko ekainaren 7ko Europako Parlamentua osatzeko hauteskundeak direla eta, hauteskunde mahaia osatuko duten kideak hautatatu behar dira: Presidente eta bokal bi eta bakoitzaren bi ordezeko.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak arautzen duenaren arabera, Presidente eta Bokalak zozketaz hautatzen dira, idazten eta irakurten dakiten hirurogeita bost urtez beherako biztanleen artean. Presidenteak batxilergo edo bigarren mailako lanbide heziketa titulua izan beharko du, edo subsidiarioki Eskola-Graduatu titulua edo ordezkoa.

Zozketa eginda, honako emaitza jaso da:

Titularra:

- Presidente: (0115) Maria Jose Erezuma Irazabal andrea
- 1. Bokala: (0082) Jone Carbonell Erezuma andrea
- 2. Bokala: (0365) Felix Zabala Gorriño jauna

Ordezkoak:



Ajangizko Udala

- Presidentearen 1. Ordezkoa: (0150) Eide Garcia Amunategi andrea
- Presidentearen 2. Ordezkoa: (0077) Aimar Bilbao Urizar jauna
- 1. Bokalaren 1. Ordezkoa: (0009) Amaia Albizu Intxausti andrea
- 1. Bokalaren 2. Ordezkoa: (0109) Javier Enbeita Solloa jauna
- 2. Bokalaren 1. Ordezkoa: (0178) Elena Herrarte Beitia andrea
- 2. Bokalaren 2. Ordezkoa: (0064) Ainara Bermeosolo Beitia andrea

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da iluntzeko zortzi t´erdiak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA